

GILLEN LARRAÑAGA AZPIAZU, S. J. (1905-1978)

Azkoitiarra zen jaiotzez, 1905eko Apirilaren 10ean sortua. Azkoitiarra izaki, ezizenez ere —nola ez gero!— ezaguna zen “Txapa” hau. Izentzat Gillen zerabilan gero eta gehiago azken urteotako bere eskribuetan.

1921eko Irailaren 7an jesuita sartu zenean, batxiller ikaskizunez gainera, jaioterriko euskara ederra ekarri zuen berekin. Urte bi geroago, zinitzak eman eta Humanitate-Erretorikei loturik, Olabide eta Estefaniarekin batipat (Barne Muinetan, hitzaurrea) topo egin zuen Loiolan. Biok akulari, Ibero kaputxinoaren *A mi vasco* liburuak eman-indarretik jaiki zen Loiolako euskal mugida pot-egina, gure literaturan hain ezagunak izango ziren hoietarik bat Larrañaga zela.

Oña (Burgos), Caracas, Marneffe (Belgika), Bilbo (aldi labur batez), Las Palmas eta Muskaria ditu Larrañagak bere jesuitagintzako pausaleku edo geroagoko lantegi.

Non hasi zen idazten? Oñan? Marneffen? Hortik abiatu ziren bere goiko lagun horietarik zenbait, Deia-n, Jaungoiko-Zale-n eta Argia-n idatziz: “ezizenez edo izenik gabe baina, *giroak* hala agintzen zuelako”, diosta Muxikak. Lerro hauek presaka eman beharrak astirik ez dit utzi Larrañagarekiko puntu hau garbitzeko.

“Venezuelan irakasle zebilkigularik, Euzko Gogoan asizan idazten...” behinik behin ez dago zuzen esana. Urte mor-do handia baitago hortik Zaitegiren herbeste-aldizkaria jaioko denera. Ezago oraindik 1921eko Euzko Deya-n ezer argitaratu izana. Horretara, jesuita sartu baino lehen, ikastetxeko eskolari zela, hasirik izango zitzaigun azkoitiarra idazten. Ez zen ahartean holako piku eldurik gure ikastetxeetan.

Latza, ostera, azkoitiar idazlearen euskal adurra. Nora bidali, hara joan zen isilik. Baina haren idazletzako bide-hariak sekulan ez ziren euskal lurretako “meridiano” bihurtu; euskararen lurretatik kanpo beti euskal kezkek hain biziro jotako gizona!

ZIENTZI-irakasle izan zen beti. Bainan erdarazko bere eskolak amaiatutakoan, euskaran murgiltzen zen, hemengo ikastol-ikastetxez gogaturik. Nork eta, Txapa honexek bai euskararen giroan bizitzea merezi, bere textugintzako auke-retan kalerik egin ez zezan.

Arlo honetan hogeitabat karpeta-paper laga ditu zuri-beztuak. Hoietarik itzulpen soil dira asko; berebaitako lan zenbaitzu. Onaindiak dioen Botanika, Geologia, Zoologia eta Biologiak gainera, Fisika, Profesio-eskoletarako Mekanika, Teknologi-mekanika, Kimika, Natur Zientziak, Nekazaritza (bi ale, irudiduna eta irudigabea), 3., 4., 5. eta 6. basikoak; Eboluzioa eta Alabeharra, Ekologia eta Eboluzioa; Gizasoina: Genetika-Mendelen legeak eta abar utzi dizkigu eskuz edo makinaz idatzita.

Idatziko zuenik pentsatuko ez litzatekeen ere badu, "Reseña-tik eta Artikulua" izeneko bere karpeta batetan bilduta. Adibidez: Gaurko teatrukera berri bat, Itz-kultura ta Ritmo-kultura, Teatro surrealista, Grahon Greeneren A sort of life, Humorismoa, Gazteen kantua: La nova Canço Catalana, Nova Cantiga Galega eta Kastilla".

Alfertzat ez du inork salatuko Larrañaga. Ez eta euskarakiko hoz-tzat ere. Noranahi bidali, bere baitan eraman zuen bere euskara, barakuiloen oskoletxea baino barneago. Motza zuen eguna bere idatz-irrika asetzeko. Denbora galtzen ez du asko ikusi inork.

Irakasle denez, argia dirudi azalpenetan. Ulerterraz eta gustagarria bere euskara. Irakas-teknika egoneko-estatikoa ote duen susmotxoa hartzen diot neure ezjakinean, gaurregun ohi dabilen dinamikarako; bainan ikasiek iritzia bère, hor.

Gutxiago idatzi balu hobe, diot. Ongi-k adina ugari-k liluratua iritzi deritzat Larrañagari. Beti aurrera eta berritara beharrekoa, bahe-galbaheak ez zituen gogoko esku-trena.

Letraz kanpo, tenple handiko gizona zen izpirituz. Azalez eta moduz latzexka generitzana, seme-izpiritu bete-betekoa azaldu zaigu Aitarekiko, azken minbizi aldian. Harekin deza-la atsegin.

Ion Goikoetxea Maiza